

PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

17-6-30 22. ALEA



Herriola
argazkitan

2. ORR. ►►

Liburutegiak
urte bete

4. ORR. ►►

Indarkeria matxistarik
gabeko festak

6. ORR. ►►

Bertsogintzaren haria indartu nahian

8. ORR. ►►

Herriola, herri baten indarra

2017ko maiatzaren 20an erdi aroz jantzi zen Zizurkil, herritarrek herritarrentzat egindako festan. Hamaika ekitaldi izan ziren, Plazaberrik herri antzerkiko zenbait argazki bildu ditu baina egun horretako ikus entzunezkoa eskura dago Hernandorena kultur taldearen web orrian edo zizurkil.eus atarian.



P.M. Otaño plazako lanak martxa onean

216.000 eurotan esleitu dira lanak eta festetarako amaitzea da aurreikuspena.



2017 urteko lanik nagusia zen aurrekontuari begiratuta uneotan egiten ari dena. "Trafikoa plazatik pasatzen denez, lanak 3 fasetan banatu dira: Erdia itxi zen aurrena, elizagandik gertuago dagoen zati hori. Bigarren fasean Asteasu eta Buztin bailarako aldea itxi da eta hirugarren fasean plaza osorik itxiko da. Osorik itxita ordea, ez da denbora asko egongo aurreikusitakoa betetz gero" zehaztu digu Joxe Mari Luengo alkateak.

Otegi-Gaztañaga enpresa ari da lanak egiten. "Ondo doaz eta espero dugu aurreikusitako epeak betetzea, festetarako plaza berria estreinatzeko moduan izango da".

Zuhaitza geroago

Jakina denez haritza jarriko da zuhaitz gisa horrela erabaki baitzen egin ziren parte

hartze prozesuetan. "Lanak espero baino beranduago hasi dira ordea, eta horregatik, argitu behar da segituan ez dela jarriko zuhaitza, hurrengo urtearen hasieran, otsaila ingurua delako landaketarako garai egokiena. Orain eremu bat utziko da landaketa hori egiteko, oholtza moduko batekin estaliko dena", zehaztu du alkateak. Zuhaitzaren kokapena ere gogoratu du. "Aurrekoan esan bezala, zuhaitza ez da erdi erdian egongo, zentroaren pare inguruan egongo da ekitaldiak egiten direnean plaza erdian bista hobea izan dadin. Herritarrekin egindako bileran jaso zen ekarpenetako bat da eta uste dugu zentzuz egina dagoela". Lanek eragozpenak eragiten dituztela jakitun, pazientzia eskatu die alkateak herritarrei eta tabernariei.

3

Cambios en el alumbrado municipal

El Ayuntamiento sigue cambiando la iluminación del municipio apostando por luces LED, que son más eficientes. "En las últimas semanas, hemos cambiado la iluminación de las escuelas y en una zona del barrio Muñoa. Ahora la intención es realizar el cambio en todo el barrio Muñoa- Oakaztegi. Es una inversión de unos 20.000 euros, pero hay que tener en cuenta

un dato: Si antes una farola gastaba 168 kv, con el cambio gasta 38 kv. Eso significa que la inversión estará amortizada en 3 años; además, hay opción de recibir subvenciones. El objetivo a medio plazo es cambiar la iluminación de todo el municipio, haciéndola más eficiente y ecológica"

Del mismo modo, se ha iluminado adecuadamente el puente peatonal de Ugare.

"En su día, cuando se renovó el puente, se iluminó, pero estos años se ha comprobado que no era funcional. Su función era principalmente decorativa y los vecinos y vecinas de la zona estaban pidiendo una iluminación adecuada", explica el alcalde Joxe Mari Luengo. "Estuvimos trabajando el tema con el antiguo alcalde de Villabona, pero tras su dimisión todo se paró; fi-



nalmente, nosotros hemos realizado el cambio por nuestra cuenta. Se ha estudiado la zona con una empresa especializada y la colocación de la iluminación la ha realizado la brigada municipal".

“Plazida Otaño liburutegiak z eskaintzen dio bailarari”

Plazida Otaño Aiztondoko Liburutegiak bete du lehendabiziko urtea. Zizurkilgo Udal arduradunek eta teknikariek balorazio baikorra egin dute.

4



Joxe Mari Luengo alkateak Zizurkilgo Udalak liburutegi berria zabaltzeko egindako ahalegina aipatuz hasi du Plazaberriekin izandako elkarriketa: “Alde batetik lokalaren atontze lanetan eta erositako altzari zein ekipazioan inbertsio handia egin zen. Baina

ahalegin hori ez zen une horretara mugatu. Ateak ireki ondoren ere, zerbitzu osatu bat eskeini ahal izateko urteko aurrekontua asko igo dugu. Hartu dugun langile berriak eramaten du igoeraren zati handiena”, azaldu du. Inbertsio ekonomikoa ez ezik,

inbertsio pertsonala ere azpimarratu du Luengok: “Gure teknikarien lana ere areagotu egin du zerbitzu berriak”, dio. “Baina argi dugu hori dela bidea. Abentura hau hasi genuenean apustu sendoa egin genuen, eta apustuak sendoa izaten jarraitzen du”.

Sorreran bezalaxe, egindako ibilbidean lagun izan ditu Zizurkilek bailarako gainontzeko herriak. “Larraul, Alkiza, Aduna eta Asteasuko udal ordezkariekin batera egin dugu lehendabiziko urtearen balorazioa eta eurak ere kontziente dira egin dugun ahalegin horretaz. Eta batez ere kontziente dira liburutegiak bailarari egin dion ekarpenaz”. Alkatearen arabera, “Plazida Otaño Liburutegiak lehen ez genuen zerbitzu osatu bat eskaintzen die

herritarrei, eta herritarrek esker onez baliatu dute eskaintza hori. Hau frogatzeko erabilera datuak erreparatu besterik ez dago”. Ainhoa Larrea kultura teknikariak eman du erabilera datuen lagin bat: “Maileguei dagokienez, 2015eko maiatzetik abendura bitartean 2387 mailegu egin ziren Zizurkilgo liburutegian. 2016an, denbora tarte berean 5844 mailegu izan ziren Plazida Otaño Liburutegian. Horrez gain, irakurle berrien kopuruak ere gora egin du, hilabetero bazkide berriak izan direlarik”. Baina daturik azpimarragarriena erabiltzaileen jatorriaren ingurukoa da. “Aurtengo urtarrilean Plazida Otaño zerbitzuak erabili dituen 1923 erabiltzaileetatik 1312 dira zizurkildarrak; 415 villabonakoak dira, 63 Asteasuakoak,

“La biblioteca Plazida Otaño ofrece a la comarca un servicio integral”

La biblioteca de Aiztondo ha cumplido su primer año y Plazaberri se ha reunido con los responsables para realizar una valoración. El alcalde Joxe Mari Luengo y los técnicos del Ayuntamiento coinciden en que “Plazida Otaño ha ofrecido a la comarca un

servicio integral que antes no teníamos, por lo que los vecinos y las vecinas lo han aprovechado al máximo”. Entre mayo y diciembre de 2015 hubo 2.387 préstamos. En 2016 y en el mismo plazo Plazida Otaño hizo un total de 5.844 préstamos. En cuan-

to al origen de los usuarios, de 1.923 usuarios que hubo en enero 1.312 eran de Zizurkil, 415 vinieron de Villabona, 63 de Asteasu, 6 de Alkiza, 18 de Larraul, 35 de Aduna y 74 se acercaron desde fuera de la comarca. Zizurkil ha puesto estos datos sobre la

mesa en la que se reúnen los ayuntamientos de la comarca y están analizando la posibilidad de reforzar el trabajo conjunto para garantizar un futuro más próspero para la biblioteca. “Villabona no ha querido estar en esa mesa ni participar en el proyecto,

zerbitzu osatua

«Askotan bete da ikasgela»

6 Alkizakoak, 18 Larraulgoak, 35 Adunakoak eta 74 bailaraz kanpoko beste herrietakoak, azaldu du. Erabiltzaileen datuak mahai gainean jarri dizkie Zizurkilek bailarako gainontzeko herrie eta ekarpenak egiteko moduak aztertzen ari dira. "Villabonak ordea hasieratik muzin egin zion bailarako liburutegian parte hartzeko aukerari, baina argi dago Plazida Otañok eskainitako zerbitzua estimatu eta baliatzen dutela villabonatarrek", azpimarratu du alkateak.

Anitza

Plazidak zerbitzu osatua eskaini duela esatean, adin guztietako herritarrek eta era guztietako beharrak dituzten herritarrek asetu dituela esan nahi du. Arantxa Zabala eta Irene Urruzola liburutegian euren iritzia eman dute: "Balorazio guztiz baikorra egiten dugu: irakurle berri asko egin ditugu eta erabiltzaile berri asko

erakarri ditu liburutegi berriak: Ikasgelan ikastera, gurasoak txikiekin ipuin kontaketatara, ikasleak eskola-lanak egitera, liburuak eta beste hainbat material maileguan hartzera, egunkaria irakurtzera, erakusketak ikustera edo eta antolatutako tailer zein hitzaldietan parte hartzeko aitzakiarekin etorri dira herritarrek".

Eskaintza zabal honetatik, ikasgelak izan duen arrakasta azpimarratu nahi izan dute. "Askotan bete da eta aukera izan denean areto balioanitzaz ere ikasgela bezala atondu behar izan dugu", diote. Honekin batera, *Ipuinen unibertsoa familian* ekimena aipatu dute: "Izugarrizko lan polita egin dugu haurrekin. Lurdes Gorostegi eta Idoia Barandiaran herritarrek ipuin kontaketa bermatu dituzte ostiralero ipuin tarte deritzogun ekimenean eta hilean behin egin ditugun ipuin kontaketa bereziak ere oso estimatuak izan dira guraso zein umeen artean. Oso positibotzat jotzen dugu ekimen hau, komunitate guztia- ren parte hartzearekin osatu



ditugulako". Bailarako sortzaileekin egin diren erakusketak, antolatu diren tailerrak, *Ipuinetik Antzerkira* bezalako ikastaro iraunkorrak, emakumeen txokoak zein katalogo eguneratuak ere erakarri du jendea liburutegian ustez. Baina aldi berean oso argi dute eskaintza anitz honetatik gain, liburutegiaren ordutegi zabala dela arrakastaren gakoa. "Larunbat goizetan irekitzea positiboki baloratu dute erabiltzaileek", gehitu dute.

Asmo berriak

Lan eta ahalegin handiko urtea izan da, baina Udala

ordezkariak zein teknikariak ilusioz azaldu dizkigute etorkizuneko asmo eta erronkak. Lehenik eta behin martxan jarritako ekimenekin jarraituko dute. "Hala nola, bailarako gurasoekin elkarlanean jarraituko dugu ekintza ezberdinak sortzeko". Baina ekimen berriak ere badituzte buruan: Irailetik aurrera umeentzako plastika tailerrak, gazteen- tzako bookface eta booktrailer erakusketa eta lehiaketak, eta helduentzako literatur tertuliak abiatu nahi dituzte, besteak beste. Plazidaren asmoak ez dira agortu, ezta bere magala ere! Zorionak!.

aunque está a la vista que los vecinos y vecinas de este municipio utilizan y valoran el servicio prestado", remarca el alcalde.

Oferta variada

Las bibliotecarias Arantxa Zabala e Irene Urruzola

han valorado positivamente el primer año de la nueva biblioteca. "Hemos conseguido nuevos lectores y muchos nuevos usuarios: jóvenes que han venido a estudiar a la sala de estudios, padres y madres que se han acercado con sus hijos

e hijas a los cuentacuentos, lectores que han realizado prestamos, gente que ha venido a leer el periódico, personas que se han apuntado a alguno de los talleres que se han organizado o a ver las exposiciones...", explican. Además de este abanico de

ofertas han remarcado que gran parte del éxito está en el amplio horario de apertura de la biblioteca. El primer año ha sido fructífero y Arantxa e Irene esperan con ilusión el siguiente curso.

¡Zorionak!

Festa guztiona izan

Jaietako indarkeria matxistaren aurkako protokoloa lantzen ari dira herriko hainbat eragile.

6



"Abiapuntua duela bi urteko gertakari batzuetan kokatu behar da. Indarkeria matxista kasu bat gertatu zen Elbarrenako festetan, eta ikusi genuen koordinazio txarra izan genuela, erantzuna prestatzerakoan ere zalantzak zeudela eta hor hasi ginen pentsatzen bide orri bat behar genuela,"

azaldu dio Plazaberriri Eva Usandizaga parekidetasun zinegotziak. Usandizagak Aizan talde feministarekin hitz egin zuen eta hutsune hori bete behar zela ondorioztatu zuten.

Elkarte eta tabernariak

Udaletik protokoloak lan-

tzen arituak diren elkarteekin jarri ziren harremanetan, beharra ondoen nola osatu ikusteko. "Prozesu honen helburua argia da: Indarkeria matxista kasu bat gertatzen denean herri bezala erantzutea festa batzorde, talde feminista, herriko beste eragile, tabernari, udaltzain eta Uda-

lak elkarrekin, erantzun koherente eta bateratu bat ematea. Guztiak gonbidatu dira protokoloa lantzeko saioetara".

Farapi kooperatiba ari da prozesua gidatzen, bi saio egin dira jada. "Parte hartze zabala izaten ari da eta oso pozik gaude horregatik, lanketa horren garrantzia ez

n dadin, elkarlanean

«Uztaila amaierarako prest eduki nahi da protokoloa»

baita soilik protokoloa lantzea eta adostea, kontzientzia hartzea baizik. Edukiak barneratzea indarkeria matxistaren inguruan, indarkeria moten inguruan hausnartzea. Batzuentzat indarkeria sexista gauza bat da, besteentzat beste bat, indarkeria mota bakoitzarentzat erantzuna ere zein izan beharko den erabaki behar da... Lanketa zabala da". Uztaila amaierarako prest eduki nahi da protokoloa aurtengo festetarako balio dezan.

Bide baten hasiera

Egiten ari direna "bide baten hasiera" gisa ikusten du

Usandizagak. "Zergatik jaietara mugatzen den protokolo bat? Ulertu behar da Zizurkil herri txikia dela, ez dugu parekidetasun teknikaririk, orduan zerbait zabalagoa egitea ez da erraza, bereziki betearazteko. Osasun zerbitzuak, Ertzaintza... Protokolo orokor batek Zizurkilez gaindiko lanketa eskatzen zuen eta iruditu zitzaigun hasteko egokiago zela festetako

protokoloa. Argitu behar da, dena den, gizarte zerbitzuetan badagoela arreta protokolo orokor bat, eta bertan bideratzen dira indarkeria matxista kasu larriak, arreta hori bermatuta dago eta ematen da gaur egun".

Jaiak badituzte ezaugarri batzuk indarkeria matxista erraztu dezaketenak. "Gaua, alhokola, festa giroa, nolabait onartzen dira bestela onar-

tuko ez liratekeen jarrera batzuk eta horrek bidea errazten dio indarkeria matxistari. Nahiz eta oinarria gizartearen dagoen matxismoa izan, jaiak errazten du erasoak gertatzeko bidea". Protokoloa publikoki aurkeztu eta zabaltzea da helburua, Zizurkilek guztiok ondo pasatzeko jaiak nahi dituela argi uzteko, indarkeria matxistari **Ezetz** ozen esateko.

Aurtengo festak lantzen

Herriko bi festa batzordeak buru belarri ari dira azken asteetan abuztuko eta iraileko jaiak forma ematen. Amabirjin jaiak abuztuaren 12tik 15era izango dira aurtun. "La egunetara ekarri ditugu eta asteburua baliatuz ohiko egunak aldatzea erabaki dugu", adierazi dute festa batzordetik. Honela

ohiko egunetatik aldatu dituzte zenbait ekitaldi, bertso jaialdia esaterako abuztuaren 13an izango da, jubilatuen eguneko ohiko ekitaldiak ere egun horretan izango dira. Nobedade gisa, Gozategi taldearen kontzertua izango da abuztuaren 14an.

Arantzazuko amaren jaiak irailaren 6tik 10era izango dira, kros mixtoa bezperan izango

bada ere. "Aurtun Danena kirol elkarteak izango du txupinazoa jaurtitzeko ardura", aurreratu dute batzordetik. Nobedade gisa, irailak 7, ostegun arratsaldean, "ginkana bat egingo da eta patata tortila lehiaketa ere antolatzekotan gara. Larunbat arratsaldean berriz, goitibehera jaitsiera egingo da". Gero eta gutxiago geratzen da festez gozatzeko!

Por unas fiestas sin violencia machista

Diferentes asociaciones de Zizurkil están elaborando un protocolo para responder a posibles casos de violencia machista en fiestas. "Hace dos años hubo un caso de violencia machista y nos dimos cuenta de que no nos coordinamos bien y de que teníamos dudas respecto a la respuesta que debíamos de

dar. Concluimos que necesitábamos un protocolo", explica la concejala de igualdad Eva Usandizaga. "El objetivo es claro: Responder como pueblo a las agresiones sexistas en entornos festivos, cordinándonos entre la comisión de fiestas, las asociaciones, el Ayuntamiento... Por eso estamos elaborando

el protocolo entre todos". Usandizaga se muestra satisfecha con la respuesta dada en las primeras reuniones. "La importancia del proceso no radica solo en acordar un protocolo, tan importante como eso es interiorizar conceptos sobre violencia machista y reflexionar sobre el tema. Para algunas personas

la violencia machista es una cosa, para otras otra, y hay que acordar la respuesta para cada tipo de violencia... Es un proceso complejo e interesante". Se espera que el protocolo esté terminado a finales de julio, antes de que comiencen las fiestas de este año.

“Bertsora bestela hurbildu biltzea lortu

8

Joseba Otaegi eta Unai Mendizabal zizurkildarrek osatu dute Haritz Mujika asteasuarrarekin batera, herri artekoan txapeldun izan den bertsolari hirukotea. Karidadeko Benta izeneko taldeak eskuratu du txapela, Jon Ormazabal epaile, Mikel Maiz antolatzaile eta Igotz Alkorta gai jartzailea lagun.

Nola gogoratzen duzue final eguna?

Unai: Besteetan baino urduriago, finalaren karga, ondo egin nahi, herriko jende mordo zegoen eta haien aurrean ere behar bezala erantzun nahi... Oholtzara igo arteko presio hori bai sumatu nuela, gero oso oroitzapen onak ditut, bereziki talde gisa.

Joseba: Asteburua arraroa izan zen niretzat aizkora eta bertsoa biak nituelako baina urduritasuna esango nuke final erdian adinakoa izan zela. Egundik baten oroitzapena dut.

Herri artekoa hasi aurretik, zein zen zuen helburua?

Unai: Lehen helburua taldea ateratzea zen. Zizurkilek berak bakarrik edo Asteasuarekin batera baina taldea ateratzea. Lehen fasean, favoritoetako zen Zarautz gure multzoan zela ikusita ez nuen uste pasako ginenik, multzotik bakarra pasatzen baitzen. Beraz, helburua, taldea atera, ahalik eta txukunen egin eta herrian genuen saiora jendea hurbiltzea eta giro ona sortzea zen.



Joseba Otaegi kantuan, Unai Mendizabal eta Haritz Mujika atzean dituela.

harko ez zen jendea hartuko du txapelketak"

Eta zer balantze egiten duzue?

Unai: Ezin positiboagoa. Gure indargunea talde lana izan da. Taldekako ariketetan ia beti gehiago izan gara. Gero, orokorrago begiratu jarritz, Joseba bera berriz plazara ateratu izana, Jon Ormazabal bezalako bat taldean sartu eta epaile gisa parte hartu izana, antolatzaile lanak egin dituen Mikel Maiz asteasuarrak izan duen ilusioa eta bertso mundura nola lotu den... Azkenean, bertsozale elkartetik txapelketa honekin bertso mugimendua astindu nahi zen eta hori gure taldean lortu dela esango nuke.

Joseba: Pertsonalki begiratu jarrita, hasieran festa gehiago izan zen baina txapelketa aurrera joan ahala hori estutzen joan zen edo nik hala sentitu nuen, bereziki Zarautz kanporatu ostean. Ikusten nuen Unai eta Haritz ze ondo zeuden eta huts egiteko presioa hor sumatu nuen, bereziki bigarren faseko saioetan. Esan behar da gidaritzat Haritzek eta Unai eraman dutela, agurrak ere eurek landu dituzte eta ni laguntzen egon naiz.

Bertso mugimenduak behar zuen astindu bat Gipuzkoan?

Unai: Gu bertsolari gisa plazetan gabiltzanok agian

ez, baina bertsolaritza oinarri horrek bai. Plazara ateratzeko zalantza dauzen bertsolariak animatzeko, pixka bat utzita zegoena hurbiltzeko, epaile eta gai jartzaileak ateratzeko gero beste txapelketetan ibil daitezen... hor behar zen astindua, bertsolaritza ez baikara bakarrik plazan gabiltzan bertsolariak.

Asteasu eta Zizurkilengindako saioetan betekadak izan dira... horrek zer garrantzia du?

Unai: Pozgarria da. Eta jende gazteari dagokionez, Asteasu eta Zizurkilengure inguruko jende gaztea hurbildu zen baina finaleko egunean autobusa nola betetzen ikustea izan zen polita. Herriko 50 gaztek, festa egun bat nola antolatu zuten gure parte hartzearen eta bertsoaren jiran. Hori garrantzitsua da batzuk bestela ez zirelako bertsoa hurbilduko.

Karidadeko Benta izena erabili duzue. Askorentzat ezezaguna da bentaren istorioa...

Unai: Bai askok duela urte batzuetako musika talde batekin lotzen du baina ez daki Zizurkilenguregoen benta bat zenik eta benta hori bertsolarien bilgune izan zela. Bada gogoan eduki beharreko toki bat Aiztondori dagokionez behintzat, nondik gatozen

jakiteko. Asteasu eta Zizurkilgo taldea izanda proposatu zen bertsolarien bilgune horren izena ematea.

Joseba, txapelketakozuzte bat izan zara askorentzat. Aurrera begiratu zer?

Joseba: Nik berriz ere horrelakoren batean parte hartuko dut bai baina ez dut bestelako asmorik bertsoetan. Esan didate jende askok sorpresa hartu duela nire mailarekin baina nabarmenduko nuke txapelketa honek aukera ematen zuela lanak banatzeko, eta puntukakoa kenduta, lan gehienak nire estilora ekartzeko aukera izan dudala. Esan nahi nuen esateko lekua izan dut, zortziko handian edo habaneran esaterako. Nik nabarmentzekotan, Unai eta Haritzen maila nabarmenduko nuke, edozeini aurre egiteko moduko bertsolariak daude.

Unai: Ez diot nire buruari erronka berezirik jartzen. Pena bai, udazkenean hasiko den Euskal Herriko kanpora geratu naizela atea juxtu pare parean itxita. Politia izango litzateke parte hartzea Euskal Herrikoan, hori helburu bat izan liteke baina momentuz plaza batzuk badituzte eta gustora nago horiekin eta bertsoaz gozatzen jarraitu nahi nuke.

Ariketa aukeratuak

Joseba Otaegi

8 Oinak emanda Habaneran
Alegia 2017-05-06

Goizean goiz ondo jantzi txaketak eta zapata Madril aldean, ai majok a zer nolako soldata hilero milioiak jaso ta halare beti falta Gainera egiten dute oso langileen planta eztaukanari kendu nahi ez al da gauza galanta! Guk jorrala irabazten de baina ederki kostata bat baino gehio estutu nahiko nieke korbata kabroi hoik gure kontura ederki bizi dira ta

Unai Mendizabal

Zizurkil 2017-03-24

Gaia: Itsu gelditu zinen gaztetan lan ezbehar bat tarteko. Azken 15 urtetan bide erakusle izan duzun txakurra hil berri da. Oraintxe ari dira etxetik eramaten.

Bide lagun bat nahi nuen eta egin nuen eskaria Argi izena, ipini nion hain baitzen txakur argia bidea berak erakutsiaz itsuaren miraria; herioren oparia bukatu zaio bidia! Kamila baten bota omen dute ta gainian maindiria agian hau da ezer ikusi nahi ez dedan lehen aldia

Inorri ere ez diot opa gaur daukadan egoera beti berekin joaten nintzen etxe zuloatik kalera ta orain berriz Unai zer egin, zuloatik nola ateral nere ikusmena zu zera, orain betazalak behera sarri askotan galdetu izan det: Zerurikan bat ote da? Hemen ez ginan ikusi baino bertan ikusiko gerra

Harituz, urrats bat gehiago eman nahian

Tolosaldeko bertsozaleen bilguneak bertsolarien harrobia sendotu nahi du, haur eta gaztetxoekin lan eginez



10

Lau urte pasa badira jada Harituz sortu zela. "Jende bat bageunden bertsotan aritzen ginenak Tolosaldean baina elkarren artean harremanik ez genuenak. Gero bertsolariak bakarrik ez, bertsozale esparrura ere zabaldu zen. Urte hauetan erreferente bat izatea lortu dugu, Tolosaldea eta bertsoa lotuta Harituz etortzen zaie burura askori, herriarteko bat egin zen Tolosaldea mailan,

Pernando Amezketarra sariketa, hitzaldiak, Zizurkil-en Herrendorenarekin batera darabagu P. M. Otaño bertso paper lehiaketa..."; azaldu du Unai Mendizabal Harituzeko kideak.

Orain, urrats bat aurrera egin nahi dute elkartetik. "Ikusi dugu Tolosaldean dabilen bertsolari gazteena Haritz Mujika dela, haren atzetik ez dagoela inor. Hor urrats bat eman ezean gero eta hutsune

handiagoa egongo da. Falta ditugu gaztetxoak bertsoaren soka horri eutsiko diotenak. Horregatik, Eskolaz kanpoko bertso eskola horiek sortu eta daudenak indartu nahi ditugu, eurentzat aisialdiak antolatu, Harituzen eskutik antolatzen diren ekintzen parte izan..."; dio Mendizabalek. "Udalei plan bat aurkeztu diegu, orain artean ez genuen diru laguntzarik eskatzen baina urrats hori emateko pertsona bat liberatu nahi dugu eta horretarako aurkeztu diegu Udalei laguntza. Orain arte hezkuntza arautuan, *Gu ere bertsotan* proiektuan eskoletan 15ean behin ematen da bertsolaritza, baina hori lehen kontaktua da, klasean hasitako hori eskolaz kanpoko bertso eskoletan sakondu nahi dugu".

Hasiera batean 5-6 mailan dauden haurrei begira egingo da eskaintza, eta herriro ez bada ere, guneka bertso eskolak sortu nahi dira, gero elkarren artean harremanetan jarri eta saretzeko. "Irailan eskolaz eskola motibazio saioak egingo ditugu bertsolariekin eta horrekin batera matrikulazio kanpaina serio bat egin nahi da. Eskualdeko bertsogintzarako ezinbesteko urratsa dela uste dugu". Eta bertsolaritza lantzeak baditu albo onurak ere. Iñaki Eizmendi EBETE gaztetxoaren artean euskara sustatzeko ekimeneko kideak dioen moduan, "bertso eskolek euskara aberastu eta gaztetxoek elkarren artean euskaraz hitz egiteko bidea sustatzen dute". Haria ez dadin eten.

Harituz, el hilo que quiere unir a bertsolaris de diferentes generaciones

El equipo de Zizurkil-Asteasu Karidadeko Benta se ha alzado finalmente con la victoria en el campeonato interpueblos de bertso de Gipuzkoa. El equipo formado por los zizurkildarras Unai Mendizabal y Joseba Otaegi y el asteasuarra Haritz Mujika ha sido el vencedor entre 38 equipos. Con la txapela en la cabeza, Plaza-berri ha charlado con Otaegi y

Mendizabal. Miembros de Harituz, la asociación de bertsozales de Tolosaldea, explican la importancia de lo conseguido, pero sobre todo la necesidad de trabajar la cantera. "Harituz se creó hace 4 años como un lugar de encuentro para los bertsolaris de Tolosaldea. Hemos realizado numerosas actividades y se ha conseguido ser una referencia en la comarca.

Pero es necesario ir más allá; debemos asegurar el futuro y para ello hemos presentado un proyecto para extender el bertsolarismo entre los niños y adolescentes. Con la ayuda de los ayuntamientos, esperamos ser capaces de crear bertso eskolas como actividad extra escolar, aprovechando que los niños y niñas de entre 10-12 años tienen un primer contac-

to con el bertsolarismo en la escuela", explica Mendizabal. En septiembre diferentes bertsolaris visitarán las escuelas para animar a los niños y niñas de 5. y 6. curso de primaria a inscribirse en las bertso eskolas. Según los expertos, el bertsolarismo es una herramienta muy útil para enriquecer el euskera y fomentar su uso entre los y las adolescentes.

Zizurkilen, ekitaldiz blai

Maiatza hilabete oparoa izaten da Zizurkilen eta aurten ere horrela izan da. Ekaina ere ez da kamutsa izan! Argazki bidez ekimen batzuk jaso ditu Plazaberrik



Dantzari txiki eguna, Bukalai dantza taldearen eskutik maiatzaren 13an.

11



Aiztondoko herrietan barna Zuberoako maskaradak ezagutzeko aukera izan zen maiatzaren 6an.



Beste urte batez emakumeen txirrindularitza onena ikusi zen Zizurkilen.



Zizurkilgo taldea finalaren atarian geratu da herriartekoan Oartzunen aurka galduta.



Aurten ekainera aurreratuta ospatu da Koadrilen Eguna, giro apartarekin.

HARITZ ZUBILLAGA



Zizurkilen bizi da Txirrita

laz taularatu zen *Gabon*, *Txirrita* lanean hartu zuen parte Haritz Zubillagak. Zizurkilen bizi den urnietarra Zizurkilen egindako azken bi herri antzerkietan ere aritu da.



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria

Herritarren Parte Hartze
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak,
Ernio Bidea 9A, beheka,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.

Nondik datorkizu antzerkirako sena?

Egia esan, ez dakit. Parrandazale samarra izan naiz betidanik eta kontzertuen artean betikoak igotzen ginen oholtzara, bertsotara edo txistek kontatzera. Hala, egun batean, Sarobetik (Urnietako arte eszenikoen gunea) deitu zidaten, Urnietan egitekoak ziren antzerki batean parte hartzeko. 2010ean-edo izango zen hori.

Eta lehena eginda, gustatu.

Bai. Herrian horrelakoak egiten zirenean deitu egiten zidaten eta antzerki tailerretan ere apuntatu nintzen. Ostiraletan biltzen ginen eta larunbat goizetan kanpoko norbait etortzen zen irakastera: jarrerak, posturak, teknikak... Ikasten joan ginen.

laz Gabon, Txirritan parte hartzeko aukera izan zenuen. Nola sortu zitzazun?

Xabier Letek idatzitako obra da eta, Donostia 2016ren baitan, Miren Gojenolari eta Mikel Laskuraini hori taularatzeko lana eman zitzaion. Urnietako jendeak parte hartzea zen baldintza, orain dela 30 bat urte Urnietako antzerki taldeak taularatu baitzuen eta esperientzia errepikatu nahi zutelako. Parte hartu nezan deitu zidaten.

Eta paper protagonista, zuretzat.

Bai. "Gaur gidoiaren irakurketa egingo dugu" esan ziguten eta Txirritari tokatu zitzaionean, Mirenek (Gojenolak) esan zidan "zuk irakurri". Txirritaren parte

irakurri nuen eta hor gertatu nintzen. Nik uste aurrez bertsozalea nintzela ere esan ziotela...

Oihartzun handia izan zuen antzezlanak. Horrek presioa eranstendio?

Niri ez zidan asko suposatatu. Beste paper bat izan baldintza, serioagoa-edo, beste gauza bat izango zen baina paper hori... bertsozalea eta parrandazalea, ongi egokitzen zitzaidan (barrez).

Zizurkilgo herri antzerkietan ere hartu duzu parte. Ezberdintasunak ere egongo dira herri antzerkietan bestelako antzezlanekin alderatuz...

Antzerki taldean egiten direnak teknikoagoak dira, gehiago exijitzen da baita ere. Kasu honetan, Iraitzek (Lizarragak) nahiko lan izan du gu guztiok: hainbeste denbora ez da entseatzeko eta zure erara molda dezakezu esan beharrekoa. Talde polita osatu dugu, eta kontaktua egin dugu bestela arrimatuko ez ginatekeen pertsonekin.

Kirolean ere bazabiltza. Erronkarik?

Bai, triatlouetan nabil, aurtentz laugarren urtez. Lehen gusinarekin mutilak taldea osatzeko norbait falta zutela esan zidan eta gustatu eta Hernaniko taldean nabil. Gutxi barru Donostiako Onditza proba egingo dut, Getaria-Zarautz igeri, Behobia ere bai eta mendiko lasterketa bat Gorbean. Oraingo horietan nago apuntatuta; gero gehiago izango dira.

Esaiguzu...

Pertsona bat.

Lazkao Txiki esango nuke, txikia eta bertsozalea delako, baina herrikoak izanda... Otaño edo Unai Mendizabal!

Toki bat.

Zizurkilgo plaza.

Zer dago soberan?

Kontenedoretik kanpo uzten duten zaborra.

Eta faltan?

Kontzientziazioa hainbat gaien bueltan. Eta, herria zeharkatzen duen trafikoa jaisteko moduren bat.

